

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

475/2026 Erabakia, uztailaren 21ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiak hainbat erakundetan izango dituen ordezkariak izendatzeari

Egun, Arabako Foru Aldundiak ehuneko 8,04ko partaidetza du (1.000 akzio) Sociedad Promotora Bilbao Plaza Financiera SAren (aurrerantzean, sozietatea) kapital sozialean. Merkataritza sozietate horrek Bilbon (Bizkaia) du egoitza soziala.

Sozietatearen 2026ko ekainaren 26ko Ezohiko Batzar Orokorrean, aho batez erabaki zen Arabako Foru Aldundia Sozietatearen Administrazio Kontseiluko kide izateko onartzea, bost (5) urteko estatutu eperako.

Kapital Sozietateei buruzko Legearen testuategia onesten duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren 212 bis artikuluekin bat etorriz (aurrerantzean, Kapital Sozietatei buruzko Legea), Foru Aldundi honek pertsona fisiko baten ordezkari baten bidez jardungo du Administrazio Kontseiluan, hain zuzen, M.^a Itziar Gonzalo de Zuazo egungo bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren bidez, Foru Gobernu Kontseiluaren erabaki honen indarrez.

Nolanahi ere, lehen aipatutako Ezohiko Batzar Orokorrean aktan adierazitakoaren arabera, eta Kapital Sozietateen Legearen 214.3 artikuluari dagokionez, karguaren onarpena sozietateari zuzendutako gutun banandu bidez formalizatuko da. Gutun horretan, izendatu den pertsona fisikoak berariaz adieraziko du ez dagoela Kapital Sozietateen Legearen 213. artikuluan xedatutako debeku edo bateraezintasun kausetako batean, ezta lege edo estatutu izaerako beste arauen batean ere, eta, era berean, eta konpromisoa hartuko du bere kargua leialki eta sozietatearen intereserako betetzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren ardura da Arabako Foru Aldundiak erakunde eta instituzio publiko nahiz pribatuetan dituen ordezkariak izendatzea, martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolaketari eta araubide juridikoari buruzkoa, bere 8.1.a) artikuluan, 8. eta 9. idatz zatietan aurreikusikoaren arabera.

Beharrezkoa da Arabako Foru Aldundiak Sociedad Promotora Bilbao Plaza Financiera SA sozietate sustatzailearen Administrazio Kontseiluan izango duen ordezkari izendatzea, ares-tian adierazitakoaren arabera.

Horregatik, Diputatu nagusiaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa: Onestea M.^a Itziar Gonzalo de Zuazo, egungo bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, Arabako Foru Aldundiaren ordezkari izendatzea Bilbao Plaza Financiera SA sozietate sustatzailearen Administrazio Kontseilurako (Foru Administrazioaren partaidetza duten Erakundeen Erregistroko 190.1 kodea).

Bigarrena: erabaki honek onesten den egunetik aurrera izango ditu ondorioak, hargatik eragotzi gabe ALHAOn argitaratzea eta aurretik kargua onartzeko formalizazioari buruz adierazitakoa.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 21a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kabinetearen eta Komunikazioaren zuzendaria

ELENA FERREIRA SEBASTIÁN